

# KOSTALDEKO IBILBIDEA SENDERO LITORAL

Euskaditik igarotzean, E9 "Europako Kostaldeko ibilbidea" mendiko ibilbide luze (GR) gisa seinaleztatuta dago. Ibilbide hauekin bat egiten du: GR 121\* "Talaia ibilbidea" Gipuzkoan, eta GR 123\* "Bizkaiko Bira" Bizkaian.

A su paso por Euskadi, el E9 "Sendero Litoral Europeo" se encuentra señalado como sendero de gran recorrido. Coincide con el GR\* 121 "Sendero Talaia" en Gipuzkoa y con el GR\* 123 "Vuelta a Bizkaia" en el tramo vizcaino.



## GOMENDIOAK RECOMENDACIONES

Saia zaitzez etapak norbaitekin egiten, eta esan nora zoazen eta noiz etorriko zaren.

Planifikatu ondo etapak, eta diseinatu zure aukeren arabera.

Eraman oinetako eta arropa egokiak, eguraldiaren iragarpena kontuan hartuta.

Eraman beti behar den beste hornigai (ura, janaria, botikina, mugikorra ondo kargatuta, dirua, dokumentazioa...).

Errespetatu ingurunea eta gainerako ibiltariak.

Procura realizar las etapas en compañía y deja aviso de dónde vas y cuándo vuelves.

Planifica bien las etapas y adapталas a tus posibilidades.

Lleva calzado y ropa adecuados teniendo en cuenta la predicción del tiempo.

Lleva siempre equipo suficiente (agua, alimentos, botiquín, móvil bien cargado, dinero, documentación...).


Respeto el entorno que visitas y al resto de senderistas.

EUSKO JAURLARITZA GOBIERNO VASCO

Oria ibaia zeharkatu ondoren, elementu berri bat nagusitzen da paisaian: muino leunak txakolin-mahastiz estaltzen dira, terrazetan hedatuak eta itsas brisak laztanduak. Zarautzen dago euskal kostaldeko hondartzak handiena, eta, atze-oihal gisa, Getariako "sagu" bereizgarria, Zumaiarako bidean urrunean ikusiko duguna.

Una vez cruzado el Oria, un nuevo elemento predomina en el paisaje: las suaves colinas se cubren de viñedos de Txakoli, que se extienden en terrazas, acariciados por la brisa marina. En Zarautz encontramos el mayor arenal de la costa vasca y, como telón de fondo, el característico "ratón" de Getaria, que veremos a lo lejos en nuestro camino hacia Zumaia.

16,5 km 619 m 5h 25' MIDE 1-2-2-3



### MIDE

- 1 Ingurunean arriskuak egon daitezke. El medio no está exento de riesgos
- 2 Bidekak edo jarraibidea adierazten duten seinaleak. Sendas o señalización que indica la continuidad
- 2 Zaldibideko ibaldia. Marcha por caminos de herradura
- 3 3 eta 6 ordu arteko ibaldia jarraia. De 3 a 6 horas de marcha efectiva

### SEINALEZTAPENA SEÑALIZACIÓN

- GR\* 121
- Ibilbidearen jarraipena. Continuidad del sendero
- Norabide aldaketa. Cambio de dirección
- Norabide okerra. Dirección equivocada

## Bidezatia / Tramo ORIO ► ZARAUTZ



Zarautz Talaipuntatik Zarautz desde Talaipunta

km 0 ... **ORIO.** Oria ibaiaren itsasadarra zeharkatu ondoren, hantxe hartzen dute atsedean herriko arrantza-ontziek, tren-geltokiaren ondotik igaroko gara, San Paulo basiliza txikiaren bila. Handik abiatzen da bideka atsegin bat, Orioko itsasadarraren eta hiribiduaren bista ederrak eskaintzen dituena, Oribarzar hondartzak txikiaren ondora iritsi arte. Txakolin-mahastiz betetako mendi-mazelak izango ditugu lagun Talaimendiko gaineraino.

km 3,5 ... **TALAIMENDI.** Kanpinaren ondoan, Donejakue bideari agur esan eta kostalderantz abiatuko gara. Itsaslalbarren oinean, Malla Harria mineral-kargaleku zahararen hondakinak nabarmentzen dira. Harmaila luze batek lñurritzara jaitsaraziko gaitu. Bertan, euskal kostaldeko dunagune zabalena eta hobekien kontserbatua aurkituko dugu. Dunen gaineratik, golf-zelaiaren ondotik, doan egurrezko pasabideak Zarautzera eramango gaitu, galtzeko arriskurik gabe.

km 0 ... **ORIO.** Cruzamos la ría del Oria, donde descansa la flota pesquera de la localidad y pasamos justo a la estación de tren en busca de la pequeña ermita de San Pablo. Desde aquí parte un agradable sendero que ofrece magníficas vistas sobre la ría y la villa de Orio hasta desembocar junto a la pequeña playa de Oribarzar. Laderas cubiertas por viñedos de txakoli nos acompañan hasta el alto de Talaimendi.

km 3,5 ... **TALAIMENDI.** Junto al camping, nos despedimos del Camino de Santiago y nos dirigimos hacia la costa, donde al pie de los acantilados destacan los restos del antiguo cargadero de mineral de Malla Harria. Una larga escalinata nos hará descender hasta lñurritza, donde encontramos el campo de dunas más extenso y mejor conservado del litoral vasco. La pasarela de madera que discurre sobre las propias dunas, junto al campo de golf, nos conduce sin pérdida a Zarautz.

## ORIO ► ZARAUTZ

↓ TRACK

+ INFO

**ZARAUTZ** Km. 6,8

**TALAIMENDI** Km. 3,5

**ORIO** Km. 0

**LEYENDA**

E9 - GR* 121	Hondartzak / Playa	Jaberria / Jatetxea / Bar / Restaurante	Medikua / Servicio médico
Beste GR batzuk / Otros GRs	Ikuspegi panoramikoak / Vistas panorámicas	Ostata / Alojamiento	Farmazia / Farmacia
Donejakue Bidea / Camino de Santiago	Eraikin erlijioso / Edificio religioso	Kanpina / Camping	Tren geltokia / Estación de tren
Natura 2000 sarea / Red Natura 2000	Interesgunea / Punto de interés	Denda / Tienda	Museoa / Interpretazio-zentroa / Museo / Centro de interpretación
Iturria / Fuente	Intereseko monumentua / Interés monumental	Diru kutxa / Cajero	Turismo bulegoa / Oficina de turismo



## EZ GERATU EZAGUTU GABE! ¡NO TE LO PIERDAS!

Malla Harriko uhartetxoetan oraindik ere geratzen dira Asteasuko Andazarrate meategietatik aireko tranbiaren bidez iristen ziren burdin mineralaren kargalekuen arrastoak. Gezurra badirudi ere, harkaitz horien artean maniobra zail bat egiten zuten itsasontziek, kargaleku metaliko baten bidez itsaso zabalean kargatu ahal izateko.



En los islotes de Malla Harria aún quedan rastros de los cargaderos de mineral de hierro que llegaban por medio de un tranvía aéreo procedentes de las minas de Andazarrate en Asteasu. Aunque parezca mentira, entre estos riscos los barcos realizaban una complicada maniobra que les permitía cargar en mar abierto por medio de un cargadero metálico.



En Zarautz existieron dos atalayas, una en Talaipunta, sin restos en la actualidad, y la otra en Mutxio, accesible descendiendo desde la ermita de Santa Bárbara. Desde ellas, los atalayeros daban la alerta del avistamiento de ballenas mediante señales visuales o sonoras. También debían dar aviso ante la amenaza de galerna o tormenta, para el socorro de naves a la deriva, así como de la proximidad de barcos enemigos en tiempo de guerra.

## Bidezatia / Tramo ZARAUTZ ► ZUMAIA

km 6,8 --- **ZARAUTZ.** Hirigune historikoaren amaieran, harrizko galtzada aldapatsua aurkituko dugu, mahasti artean Santa Barbara baselizaraino igotzen dena. Harrizko galtzada hori amaitzen den lekuan, Garateko gainerantz joko dugu, eta, berriz ere, agur esango diogu Donejakue bideari, hura Getariarantz jaisten baita.

km 9,8 --- **GARATE GAINA.** Bidexka txakolin-mahatsondoen artetik doa berriz ere, Getariako "sagua" kostalde gainean nabarmentzen delarik atze-oihal gisa, Askizu auzo txikitik gertu Donejakue bidearekin bat egin arte. Laster ikusiko dugu Urolaren bokalea. Han, Zumaiaren oinean, padurak eta dunak ikusiko ditugu ehunka urteko ontzigitza-industriaren instalazioekin batera.

km 16,5 --- **ZUMAIA**

km 6,8 --- **ZARAUTZ.** Al final del casco histórico buscamos la empinada calzada de piedra que asciende entre viñas hasta la ermita de Santa Bárbara. Donde termina la calzada empedrada tomamos dirección hacia el alto de Garate, despidiéndonos de nuevo del Camino de Santiago, que desciende hacia Getaria.

km 9,8 --- **ALTO DE GARATE.** El sendero discurre otra vez entre parras de txakoli, con el "ratón" de Getaria destacando sobre la costa como telón de fondo, hasta unirse de nuevo a la ruta jacobea cerca del pequeño barrio de Askizu. Pronto divisamos la desembocadura del Urola donde, al pie de Zumaia, conviven marismas y dunas con las instalaciones de una centenaria industria naval.

km 16,5 --- **ZUMAIA**



Santa Barbara galtzada  
Calzada de Santa Bárbara



## KONTUAN HARTU BEHARREKOAK A TENER EN CUENTA

• Kontuan izan E9-GR® 121 ibilbideak ez duela Getariako alde zaharra zeharkatzen. Bisitatu nahi izanez gero, GR ibilbidetik desbideratu gaitzke Donejakue bidetik edo N-634 errepidearen ondoan kostaldetik doan pasealekutik.

• Ten en cuenta que el trazado del E9-GR® 121 no atraviesa el casco histórico de Getaria. En caso de querer visitarlo podemos desviarnos del trazado del GR por el Camino de Santiago o por el paseo que discurre pagado a la costa junto a la N-634.



## TELEFONO INTERESGARRIAK TELÉFONOS DE INTERÉS

Turismo bulegoak  
Oficinas de Turismo

Orio	943 83 55 65
Zarautz	943 83 09 90
Getaria	943 14 09 57
Zumaia	943 14 33 96

Larrialdiak  
Emergencias



[turismoa.euskadi.eus/eu/](http://turismoa.euskadi.eus/eu/)  
[turismo.euskadi.eus/es/](http://turismo.euskadi.eus/es/)

